| 2. ERANSKINA: EUSKARA SAILA | ANEXO 2: ÁREA DE EUSKARA |
|---|---|

| | |
|---|---|
| **2.3. ARRASATEN HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEAN ARI DIREN EUSKALTEGIEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK.** | **2.3. BASES ESPECÍFICAS DE CONCESIÓN DE SUBVENCIONES A LOS EUSKALTEGIS QUE ACTÚAN EN EL ÁMBITO DE LA EUSKALDUNIZACIÓN Y ALFABETIZACIÓN DE ADULTOS EN ARRASATE.** |
| **1. Xedea.** | **1. Objeto** |
| Deialdi honen xedea da 2009. urtean Arrasaten helduen euskalduntze-alfabetatzean ari diren euskaltegiei dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea. Diruz laguntzeko programak aldizkakoak edo noizean behingo ekintzak izan daitezke. | Es objeto de la presente convocatoria la regulación de las condiciones de concesión de subvenciones a los euskaltegis que euskaldunizan y alfabetizan a adultos en Arrasate durante el ejercicio de 2009. Los programas subvencionables podrán ser periódicos o bien actividades puntuales. |
| **2. Onuradunak.** | **2. Personas beneficiarias** |
| Dirulaguntza eskatu ahal izango dute jarduteko esparrua Arrasaten duten entitateek, haien jarduerak bat etorriz gero deialdi honetako helburuarekin. | Podrán solicitar subvención aquellas entidades cuyo ámbito de actuación se encuentre en Arrasate, cuya actividad es conforme con el objeto de la presente convocatoria. |
| Deialdi honetako oinarri-arau orokorretako 4. artikuluan eskatzen diren baldintzak bete behar dituzte onuradunek, dagokion erregistro publikoan izena emateko beharrari dagokionez. | Las personas beneficiarias deberán reunir las condiciones exigidas en el artículo 4 de las bases generales de la presente convocatoria en cuanto a la obligatoriedad de inscripción en el correspondiente registro público se refiere. |
| Deialdi honetatik kanpo geratuko dira: | Quedarán excluidos de la presente convocatoria los siguientes: |
| a) Berariazko xede helduen euskalduntze-alfabetatzea ez duten jarduera edo programak. | a) Las actividades o programas cuyo objeto específico no sea la euskaldunización-alfabetización de adultos. |
| b) Enpresen beharrei erantzuteko berariaz sortutako taldeak eta zerbitzuak. | b) Grupos y servicios creados específicamente para atender necesidades de empresas. |

| | |
|---|---|
| c) Bere izaeragatik edo xedeagatik Udalaren beste diru laguntza deialdietan/atalen batean berariaz edo egokiago sar daitezkeen programak edo ekintzak. | c) Programas o actividades que por su carácter o bien objeto puedan ser introducidos explícitamente o más a propósito en otro programa de subvención del Ayuntamiento. |
| **3. Aurkeztu beharreko agiriak.** | **3. Documentación a presentar** |
| Deialdi honetako oinarri-arau orokorretako 7. artikuluan eskatzen diren agiriez gain, eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko ditu eskatzaileak: | Además de la documentación exigida en el artículo 7 de las bases generales de la presente convocatoria, junto con las solicitudes el solicitante deberá presentar la siguiente documentación: |
| a) Oinarri-arau espezifiko hauetako 2. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten mailaz eta ikastaldeez ordenatutako ikasleen zerrenda, eta adieraziko da zenbat ikastordu ematen diren talde bakoitzean. | a) Relación de alumnos ordenados por niveles y grupos de estudio que cumplan los requisitos establecidos en el artículo 2 de las presentes bases específicas, con indicación del número de horas lectivas de cada grupo. |
| **4. Izapidetzeaz arduratzen den administrazio unitatea.** | **4. Unidad administrativa encargada de la tramitación** |
| Euskararen administrazio unitateak izapidetuko ditu eskabideak. | Las solicitudes serán tramitadas por el unidad administrativa de Euskera |
| **5. Eskabideak baloratzeko irizpideak.** | **5. Criterios de valoración de las solicitudes** |
| Eman beharreko dirulaguntzak kalkulatzeko, kontuan hartuko dira irizpide hauek: | Para el cálculo de las ayudas a conceder se tendrán en cuenta los siguientes criterios: |
| a) Antolatu den jardueran edo ikastaroan emandako talde ikastorduen kopurua. | a) Número de horas lectivas de grupo impartidas en la actividad o curso organizado. |
| b) Gehienezko izaeraz, diruz lagunduko da 13,50 € arte, orduko eta taldeko. | b) Con carácter de máximo se subvencionará hasta 13,50 € por hora de grupo. |
| c) Ez dira onartuko, diruz lagundu daitezkeen kostuetarako, %15eko portzentaia gainditzen duten egitura kostuak, betiere euskarazko irakaskuntza jardueratik datozen zuzeneko kostuei buruz. | c) No serán admitidos a efectos de costes subvencionables aquellos costes de estructura que superen el porcentaje del 15% respecto de los costes directos derivados de la actividad de enseñanza del euskera. |
| d) Emandako dirulaguntza ez da izango jarduera garatzeko aurkeztu den aurrekontu osoaren %50 baino handiagoa. | d) La subvención concedida no podrá superar el 50% del presupuesto total presentado para el desarrollo de la actividad. |

| | |
|---|---|
| **6. Aurrekontua.** | **6. Presupuesto** |
| Programa honen bidez deitutako dirulaguntzen zenbatekoa 27.000 €-koa da, eta finantzatuko da "1.10.00.471.455.03.00– Euskarako dirulaguntzak" kontu sailaren kontura. | El importe de las ayudas convocadas a través del presente programa asciende a la cantidad de 27.000 €, y será financiado con cargo a la partida presupuestaria "1.10.00.471.455.03.00-Subvenciones de Euskera". |
| Aurrekontuaren kopurua iritsiko ez balitz dirulaguntza jasotzeko eskubidea duten eskabide guztiak betetzeko, handitu egingo da kopuru hori, udal aurrekontuak betetzeko oinarri-arauetan aurreikusitako kredituak aldatzeko mekanismoen bidez. | Si la dotación presupuestaria no alcanzara a cubrir el total de ayuda a percibir según la aplicación de los criterios anteriormente establecidos, se procederá, a través de los mecanismos de modificación de créditos previstos en las bases de ejecución del Presupuesto Municipal, a su oportuna ampliación. |
| **7. Ordaintzeko era eta epeak** | **7. Forma y plazos de pago** |
| Orokortasunez, ordainduko da deialdi orokorrak erregulatzen dituen oinarri-arauetako 22. artikuluan jasotakoarekin bat. | Con carácter general, el pago se realizará de conformidad con lo previsto en el artículo 22 de las bases reguladoras de la convocatoria general. |
| Edozelan ere eta salbuespenez, batera ordaindu ahal izango da dirulaguntza osoa, diruz lagundu beharreko ekintza garatuta egonez gero eta ekintza hori behar bezala justifikatzeko, agiriak bidaliz gero onuradunak. | No obstante y con carácter excepcional, se podrá pagar toda la subvención conjuntamente, en caso de que la actividad subvencionada haya sido desarrollada y la entidad beneficiada remita la documentación para justificar adecuadamente la actividad. |
| **8. Klausula gehigarria** | **8. Cláusula adicional** |
| Oinarri espezifiko hauetan jasotzen ez diren gai guztietan oinarri orokorretan ezarritakoa izango da aplikagarria. | En todo lo no recogido expresamente en las presentes bases específicas, se estará a lo dispuesto en las bases generales de la convocatoria. |
| Halaber, Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantzan eta 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorrean eta bat datozen gainontzeko lege arauetan ezarritakoari atxikiko zaio. | Asimismo, regirán la Ordenanza Municipal de Subvenciones y la Ley 38/2003, General de Subvenciones y demás disposiciones legales concordantes. |